









ge, gi *erderazko* gue, gui *bezela*.

ī » ll »

í » rr »

x » ss »

tx » ch »

Ikasbide onen euskera, Euskaltzaindiak oraingoz

zuzenetsi du.

*Gotzai Faunaren baimen berezirik gabe Ikas-
bide au berriro argitaratzea guztiz gebendua
dago.*



KRISTAU-IKASBIDEA

LENENGO MAĻA

SARERA

Galdea. Kristaua al zera?

Erantzuna. Bai jauna, kristaua naiz, Jaungoikoari eskerak.

G. Kristau izatea zer da?

E. Jesukristoren erakutsiak sinistu ta bere mirabetzarako beartua egotea da kristau izatea.

G. Zer ezaungari degu kristauok?

E. Kristauok, Gurutze Donea de-
gu ezaugarri.

G. *Ea nola «Gurutze» egiten
dezun?*

E. «Gurutze olaxe egiten da:
«Gurutze Santuaren † señaleaga-
tik * gure † etsaiengandik * zaitu gai-
tzazu † gure Jaun eta Jaungoikoa.
Amen».

G. *Ea «Aitaren» nola egiten
dezun?*

E. «Aitaren» olaxe egiten da:
«Aitaren eta Semearen † eta Espiri-
tu Santuaren izenean. Amen».





LENENGO LAURDENA

SINISTU BEAR DANA

G. *Ea esazu CREDO'a?*

E. Sinisten det Jaungoiko Aita
alguztidun, zeru-luġen egilea *, ta
bere Seme bakaġ Jesukristo gure
Jauna *: Espiritu Santuaren egitez
sortu ta Andre Maria Birjiġagandik
jaio zana *, Pontzio Pilatoren men-
dean nekaldua, gurutzean iltzatua,
iġa ta obiratua izan zana *: inper-
nuetara jetxi ta irugaġen egunean
iġen artetik piztu zana *: zeruetara

igo ta Aita Jaungoiko alguztidunaren eskui-aldetik eseririk dagona *, andik biziak eta ilak epaitzera etoriko dana *. Sinisten det Espiritu Santua *: Eliza Santu, Katolikua: Santuen alkañasuna *: pekatuen barkamena *: aragiaren piztuera *: betiko bizitza *. Amen.

G. *Sinismena zer da?*

E. Ikusi ez deguna, Jaungoikoak agertu digulako, egitzat eukitzea, da sinismena.

G. *Zer da zuk, kristau zera-
nez, sinisten dezuna?*

E. Sinismeneko egi guztiak, Kredoaren siniskaiak, batez ere, dira nik, kristau naizenez, sinisten ditudanak.

* * *

G. *Zein da Kredoaren lenengo siniskaia?*

E. Kredoaren lenengo siniskaia auxa da: SINISTEN DET AITA JAUNGOIKO ALGUZTIDUN, ZERU-LUREN EGILEA.

G. *Nor da Jaungoikoa?*

E. Izan liteken izakirik bikañena, zeru-lurén egile ta jabea, onai betiko zoriona ta gaiztoai betiko zoritxara emango dien Jauna da Jaungoikoa.

G. *Nun dago Jaungoikoa?*

E. Toki guztietan dago Jaungoikoa.

G. *Jaungoikoak dan guztia ikusten al du?*

E. Bai jauna, Jaungoikoak dan guztia ikusten du, baita gure gogorapenak ere.

G. *Zeinbat Jaungoiko dira?*

E. Ez da Jaungoiko bat besterik.

G. *Irutasun edo Trinitade guztiz Santua nor da?*

E. Irutasun edo Trinitade guztiz Santua, Jaungoikoa bera da: iru persona banak, baña Jaungoiko bakar bat.

G. *Nola dute izena iru notin edo persona jaungoikozko oiek?*

E. Iru notin edo persona jaungoi-

kozko oiek, Aita, Semea ta Espiritu Santua dute izena.

G. *Zergatik deritzaio «egilea» Jaungoikoari?*

E. Dan guztia ezerezetik atera zualako, deritzaio «egilea» Jaungoikoari.

G. *Zertarako egin zuan Jaungoikoak gizona?*

E. Bizitza onetan bere mirabe izan, eta gero, Bera ikusi ta maite izanaz, betiko atsegiñetan bizi izateko, egin zuan Jaungoikoak gizona.

* * *

G. *Zein da bigaíren siniskaia?*

E. Bigaíren siniskaia auxa da: SINISTEN DET BERE SEME BAKAR JESUKRISTO GURE JAUNA.

G. *Irutasun guztiz Donearen iru personetatik, zein egin zan gizon?*

E. Irutasun guztiz Donearen iru

personetatik bigarrena, Semea egin
zan gizon.

G. *Eta nor da Jesukristo?*

E. Gu erosi ta guri nola bizi era-
kustearren, gizon egindako, Jaungoi-
koaren Semea da Jesukristo.

G. *Irugarren siniskaia zein da?*

E. Irugarren siniskaia auxa da: SI-
NISTEN DET JESUKRISTO ESPIRITU SAN-
TUAREN EGITEZ SORTU TA ANDRE MA-
RIA BIRJIÑAGANDIK JAIO ZALA.

G. *Zein da laugarren siniskaia?*

E. Laugarren siniskaia auxa da:
SINISTEN DET JESUKRISTO, PONTZIO PI-
LATOREN MENDEAN NEKALDUA, GURU-
TZEAN ILTZATUA, ILA TA OBIRATUA
IZAN ZALA.

G. *Zergatik nai izan zuan Je-
sukristok Nekaldia igaro ta Guru-
tzean il?*

E. Gure pekatuen zoñak ordaindu
ta gu betiko eriotzatik ateratzearen,
nai izan zuan Jesukristok Nekaldia
igaro ta Gurutzean il.

G. *Zein da boskañen siniskaia?*

E. Boskañen siniskaia auxé da:
SINISTEN DET JESUKRISTO INPERNUETA-
RA JETXI TA IRUGAÑEN EGUNEAN ILĒN
ARTETIK PIZTU ZALA.

G. *Zein da seigañen siniskaia?*

E. Seigañen siniskaia auxé da:
SINISTEN DET JESUKRISTO ZERUETARA
IGO TA AITA JAUNGOIKO ALGUZTIDU-
NAREN ESKUI-ALDETIK ESERIRIK DA-
GOLA.

G. *Zein da zazpigañen sinis-
kaia?*

E. Zazpigañen siniskaia auxé da:
SINISTEN DET JESUKRISTO ZERUTIK, BI-
ZIAK ETA ILĀK EPAITZERA ETORIKO
DALA.

* * *

G. *Zein da zortzigañen sinis-
kaia?*

E. Zortzigañen siniskaia auxé da:
SINISTEN DET ESPIRITU SANTUA.

G. *Zein da bederatzigañen siniskaia?*

E. Bederatzigañen siniskaia auxeda: SINISTEN DET ELIZA SANTU, KATOLIKUA: SANTUEN ALKARTASUNA.

G. *Zein da amargañen siniskaia?*

E. Amargañen siniskaia auxeda: SINISTEN DET PEKATUEN BARKAMENA.

G. *Zein da amaikagañen siniskaia?*

E. Amaikagañen siniskaia auxeda: SINISTEN DET ARAGIAREN PIZTUERA.

G. *Zein da amabigañen siniskaia?*

E. Amabigañen siniskaia auxeda: SINISTEN DET BETIKO BIZITZA.

G. *Nora joango da gure anima bakoitz-auziaren ondorean?*

E. Bakoitz-auziaren ondorean gure anima, edo inpernura, edo garbitokira edo zerura joango da, bakoitzak irabazi duanez.

G. *Inpernua zer da?*

E. Gaizto galduak, Jaungoikoa ikusi gabe, beti-betiko oñazetan dau-den lekua de inpernua.

G. *Nortzuk joaten dira inpernura?*

E. Oben astuna egin-da Jaungoikoaren asarean iltzen diranak, joaten dira inpernura.

G. *Zerua zer da?*

E. Jaungoikoa ikusiaz ta maitatuaz, beti-betiko atsegiñetan, batere gaitzikan gabe zoriondunak bizi diran tokia da zerua.

G. *Nortzuk joaten dira zerura?*

E. Jaungoikoaren grazian iltzen diranak joaten dira zerura.





BIGAREN LAURDENA

ESKATU BEAR DANA

G. *Ea esazu «Aitagurea?»* (1).

E. Aita gurea, zeruetan zaude-
na *: santifikatua izan bedi zure ize-
na *: betor gugana zure ereinua *:
egin bedi zure borondatea zeruan
bezela lurrean ere *. Emaiguzu gaur
gure eguneroko ogia *: barka zazki-
guzu gure zorak, guk geren zordu-
nai barkatzen diegun bezela *: ez
gaitzazu utzi tentazioan erortzen *;

(1) Guipuzkoeraz erabiltzen diranetan ego-
kientzat, au berezi degu.

baizikan libra gaitzazu gaitzetik *.
Amen.

G. *Otoitz egitea, zer da?*

E. Jaungoikoagana biotza jaso ta mesedeak eskatzea da otoitz egitea.

G. *Zein otoitz egiten diozu Andre Mariari?*

E. «Aguí Maria» ta «Salve'a», batez ere, esaten dizkiogu Andre Mariari.

G. *Ea esazu «Aguí Maria?»*

E. Aguí, Maria, graziaz betea: Jauna da zurekin: bedeinkatua zera zu andre guztien artean, eta bedeinkatua da zure sabeleko frutua Jesus. Santa Maria, Jaungoikoaren Ama, éregutu ezazu gu pekatarioen alde orain eta gure eriotzeko orduan. Amen.

G. *Ea esazu «Salbea?»*

E. Aguí, Éregiña, Ama Érukioía: gure bizi, gozo ta itxaropena, aguí! Zure deiez gaude Ebaren ume érbestetuok: zuri aiezka, antsiz ta ne-

gaírez negar-erí onetan. Ea bada, itzuli itzazu gure bitarteko on orék, izuli gugana zure begi erúkitsu oiek, eta erbeste onen ondoren erakus zaiguzu Jesus, zure sabeleko Seme bedeinkatu ori. O Biozpera! O erukior! O Maria Birjin gozoa! Otoitz egizu gure alde, Jaungoikoaren Ama Done orék, Jesukristo gure Jaunaren aginduak irabaz ditzagun. Amen.

G. *Ea esazu «Gloria?»*

E. Gloria Patri et Filio et Spiritui Sancto. Sicut erat in principio et nunc et semper et in saecula saeculorum. Amen.

G. *Ea esazu «Gloria» euskeraz?*

E. Aintza Aitari ta Semeari ta Espiritu Santuari. Asieran zan bezelaxe, orain eta beti, gizaldi ta gizaldietan. Amen.





IRUGAREN LAURDENA

EGIN BEAR DANA

G. *Zein dira Jaungoikoaren
Legeko aginduak?*

E. Jaungoikoaren Legeko agin-
duak amar oek dira:

Lenengoa, Jaungoikoa maiteen iza-
tea;

Bigarena, Jaungoikoaren izena al-
perik ez aotan artzea;

Irugarrena, jai-egunak jai egitea;

Laugarrena, gurasoak aintzat euki-
tzea;

Boskarena, iñor ez iltzea;

Seigarrena, aragikeririk ez egitea;

Zazpigarrena, ez ostutzea;
Zortzigarrena, gezurrezko testigotza-
rik ez egin eta gezurik ez esatea;
Bederatzigarrena, besteren senar
edo emazterik ez nai izatea;
Amaigarrena, oker-bidez besteren
ondasunik ez nai izatea.
Amañ agindu oek bitan biltzen di-
ra: Jaungoikoa beste ezer baño
maiteago ta gure lagun urkoa
geren buruak bezela maite izate-
a. Amen.

G. *Jaungoikoaren Legeko agin-
duak betetzeko beartuak al gaude?*

E. Bai jauna, Jaungoikoaren Le-
geko agindu guztiak eta bakoitza be-
tetzeko beartuak gaude, ta ez bete-
tzea, pekatua da.

G. *Obena edo pekatua zer da?*

E. Jaungoikoaren Legean debe-
katurik dagon zerbait, nork bere go-
goz esan, egin, gogoratu, nai izan,
edo agindurik dagona ez egitea da
obena edo pekatua.

G. *Ea esaitzu Ama Eliza Donearen aginduak?*

E. Ama Eliza Donearen aginduak bost dira:

Lenengoa, igande ta jai-egunetan
Meza osoa entzutea;

Bigarrena, aitorjeta, urtean bein gutxianez egitea, ta orezaz gañera iltzeko ariskuan arkitzean, eta jaunartu baño len, baldin oben astunean bagaude;

Irugarrena, Pazko-aldean gutxianez, jaunartzea;

Laugarrena, Ama Eliza Doneak agintzen duanetan aragi-uzte ta barau egitea;

Boskarena, oi danez, amaírenak eta lenenkariak Elizari ematea.

G. *Nor daude Meza entzutera beartuak?*

E. Ezaguera duten kristau guztiak, zazpi urte betezkero, daude Meza entzutera beartuak.


G. *Eta nor daude Jaunaí-*

*tzea ta Aitořketa egitera beař-
tuak?*

E. Ezaguera duten kristau guz-
tiak daude Jaunařtzea ta Aitořketa
egitera beařtuak.

G. *Iltzeko ařiskuan aitořtzeko
erarik ez duanak, zer egingo du?*

E. Iltzeko ařiskuan aitořtzeko
erarik ez duana, aitořtzeko asmoz,
maite-damuz damutu bedi.





LAUGAREN LAURDENA

ARTU BEAR DANA

G. *Zeinbat dira Ama Eliza Donearen Sakramentuak?*

E. Ama Eliza Donearen Sakramentuak zazpi dira:

Lenengoa, Bataioa;
Bigarena, Sendotza;
Irugarena, Eukaristia;
Laugarena, Aitoztza;
Boskarena, Azken-igurtzia;
Seigarena, Apaizgintza;
Zazpigarena, ezkontza.

G. *Sakramentuak zer dira?*

E. Jesukristo gure Jaunak bere grazia ta onomenak guri emateko

jañi zituan ezaugarñi ageriak dira Sakramentuak.

* * *

G. *Zertarako jañia da Eukaristia deritzan Sakramentua?*

E. Bear bezela artuta gure animen janari ta Jaungoikoaren grazia-
ren geigarñi izan dakigun, jañia da Eukaristia deritzan Sakramentua.

G. *Zer artzen degu Eukaristia deritzan Sakramentu Donean?*

E. Aldareko Sakramentuan egiaz ta benetan dagon Jesukristo, Jaungoiko ta gizona artzen degu Eukaristia deritzan Sakramentu guztiz Donean.

G. *Nola egon bear du animak, bear bezela, Eukaristian Jauna artzeko?*

E. Jaungoikoaren grazian egon bear du animak, bear bezela, Eukaristian Jauna artzeko.

G. *Eta oben astunen bat egiten duanak, bear bezela jauna artzeko, zer egin bear du?*

E. Oben astunen bat egin duanak, bear bezela jauna artzeko, aitor-keta on bat egin bear du.

G. *Eta Aitoŕketa egin-da gero, aztutako oben astunen bat oroitzen zaionak zer egingo du?*

E. Aitoŕketa egin-da gero, aztutako oben astunen bat oroitzen zaionak, oben ura aitoŕtu egin bear du, jaunaŕtzea baño len, al baldin badu, edo urango aitoŕketan, bestela.

G. *Eta bear bezela Jauna aŕtzeko nola egon bear du gorputzak?*

E. Bear bezela Jauna aŕtzeko, pekatu astuna egin nai ez bada, gorputzak baraurik egon bear du, gaberdi-tik eta Jaunartze arte ezertxo ere jan eta edan gabe.

G. *On al da maiz Jauna artzea?*

E. Bai jauna, oso on da saŕitan Jauna aŕtzea.

G. *Zer bear da maiz ta egunero jaunaŕtzeko?*

E. Maiz eta egunero jaunaŕtzeko bi gauza bear dira: Jaungoikoaren grazian egon eta asmo zuzenez jaunaŕtu.

* * *

G. *Zertarako da Aitoŕtza edo «Confesioa» deritzan Sakramentua?*

E. Bataiatuzkero egindako pekatuak barkatzeko, da Aitoñtza edo Confesioa deritzan Sakramentua.

G. *Noiz artzen degu Aitoñtza deritzan Sakramentu au?*

E. Pekatuak ondo aitoñtu ta azkespena ematen zaigunean, artzen degu Aitoñtza deritzan Sakramentu au.

G. *Aitoñtza ondo egiteko zenbat gauza bear dira?*

E. Aitoñtza ondo egiteko bost gauza bear dira: Azterketa, biotz-damua, ontzeko asmoa, aozko aitorketa ta gaizki egiñen ordaña.

G. *Azterketa edo esamiña zer da?*

E. Jaungoikoari artarako laguntza eskatu ta, oraindik aitoñtu ez diran obenak gogora ekañtzen saiatzea, da azterketa edo esamiña.

G. *Damua zer da?*

E. Egindako obenen goñotoa ta geiago ez egiteko asmoa arerazten digun biotz-samintasuna da damua.

G. *Ea esazu maite-damua egiteko otoitza?*

E. Jesukristo nere Jaun, Jaungoiko ta gizon egiazko, nere egile ta salbatzaile ori, zerana zeralako ta gauza guztiak baño maiteago zaitudalako, damu det biotz-biotzez, damu det zu naigabetua: asmo sendoa artzen det ez geiago pekaturik egiteko, pekaturako bide guztiak utzi, aitoitu ta oben-nekea betetzeko. Amen.

G. *Asmoa zer da?*

E. Obenik geiago beñere ez egin eta obenerako bideetatik alde egiteko erabaki sendoa da asmoa.

G. *Zer da aozko aitoitketa?*

E. Oben astun guztiak, beren oben-nekea betetzeko asmoz, gezurik gabe ta norberak dakizkian bezela apaizari aitoitzea, da aozko aitoitketa.

G. *Zer da ordaña?*

E. Apaizak ezaitzen digun oben-neke edo penitentzia da ordaña.







Δ
18